

STARTINNOVA



Gure proiektua jasagarritasunari buruzkoa da, 2023ko abenduaren 19an honi buruzko bideo bat aurkeztu genuen Donostiko Kursalean eta gai horri buruzko bideo onenaren saria irabazi genuen. Horregatik erabaki dugu aukera ezinhobea dela proiektu honekin jarraitzea. Azken egunotan, jakina denez, komunikabideek mikroplastikoen olatua iragarri dute Cantabria eta Galiziako kostaldean. Eta gure proiektua arazo horretan zentratzea erabaki dugu.

Horretarako gainazala biltzeko gailuak itsasoan jartzea pentsatu genuen. Honek, makina batzuk dira, ur azalean flotatzeko eta plastikozko hondakinak biltzeko diseinatuta daude. Eguzki-energiatz edo energia eolikor elikatu daiteke, eta biltzeko sistemak erabiltzen dituzte plastikoak harrapatzeko. Itsas hondoa garbitzeko iragazki bat jartzea eta plastikoak gordetzea eta gero eskuz biltzea ere pentsatu dugu. Horrela gure helburua ozeanoak, itsasoak... plastikoetatik garbi mantentzea eta itsas fauna ez hiltzea izango da.

1. Balio-proposamena:

Bezeroari eskaini nahi dioguna kutsadura murriztea da, lehen esan bezala itsasoko plastikoak ezabatuz. Gainera, itsaskiak kontsumitzen direnean, barruan mikroplastikorik ez egotea nahi dugu.

2. Merkatuaren segmentazioa

Greenpeace bezalako iraukertasuna defendatzen duten eta mota honetako arazoei garrantzia ematen dieten kanpainei lotutako publiko bati zuzenduta egongo da gure proiektua. Edota itsasoan sortzen diren plastiko hauekin interesa duten itsas biologoei.

3. Funtsezko lankidetzak

Hornitzaileei dagokienez, proiektu honek arrantzaleekin harremanetan jarri beharko luke, arazoa hor baitago eta haiek baitira gaur egun dauden baldintzak ondoen ezagutzen dituztenak. Bestalde, itsas biologoekin harremanetan jartzea ere ezinbestekoa izango litzateke egoera aztertu eta horri buruzko informaziorik onena izan dezaten.



4. Diru-sarrerak

Gure bezero potentzialaie dagokionez, gure ikuspuntutik, makina hauek sortzea kostu handia izango dela uste dugu, batez ere jasangarritasunarekin zerikusia badute. Egia da makinaren konplexutasunaren eta hura sortzeko duen zailtasunaren arabera dela. Beraz, gure produktua 30.000 edo 40.000 euro inguru kostatuko litzatekeela uste dugu.

5. Kanalak

Gure enpresa ahalik eta gehien zabaltzeko, webgune bat sortzea ideiarik onena dela uste dugu. Horri esker, bezeroei denetarik informazioaren berri eman diezaiekegu, gurekin harremanetan jartzeko eta baita sor daitezkeen era guztietako zalantzak argitzeko ere oso baliagarria izan daiteke.

6. Bezeroekiko harremanak:

Bezeroekin ditugun harremanak posta bidezkoak izango dira eta, bestetik, haiekin harremanetan dagoen eta bilerak egiten ditugun harreman publikoetako espezialista bat izango dugu.

7. Funtsezko baliabideak:

8. Funtsezko jarduerak

9. Kostuen egitura

